

## Izena emateko prozedura BERRIA

Izena emateko epea: **otsailaren 3tik 16ra**

Plaza kopurua mugatua da (**gehienez, 63 pertsona**), eta lehentasuna izango dute Basaurin erroldatuta daudenak. Ikastaroran 63 eskabide baino gehiago badaude, **zozketa** egingo da **otsailaren 19an**, eta, onartuak izan zein ez, posta elektronikoz jakinaraziko zaie interesdunei. Zozketaren emaitzekin itxaron-zerrenda egingo da plazarik lortu ez dutenekin.

Ez da inolako ezeztapenik onartuko.

**Ikastaro bakoitzean, gutxienez 45 parte-hartzaile** beharko dira taldea sortzeko. Hala ez bada, Basauriko Udaleko Kultura Sailak beretzat gordetzen du ikastaroren bat bertan behera utzi ahal izateko eskubidea.

**Izen-ematea elektronikoki izango da.** Horretarako, [www.basauri.eus](http://www.basauri.eus) webgunean online inprimakia egongo da eskura. Jarraitu beharreko pausuak:

- 1) Aipatutako inprimakia bete baino lehen, **ordainketa egin behar duzu** autolikidazio sistemaren bidez Zerga Bulego Birtualean.

Bulego Birtualera sartzeko, baimendutako sistemekin identifikatu behar zara (BAK, BAKQ, ziurtagiri elektronikoa), eta autolikidazioen atalean sartu. Hemen, "Likidazio berria sortu" aukera hautatu behar da, **eta Autolikidazioa estekan sartu**: "PPCKP - PRECIO PUBLICO KULTURA "- 4.- Unibertsitateko kultura-aisialdia

Bi kurtsoetan inskribatu bazara, bitan aukeratu beharko duzu tarifa. Adibidez: bi kurtsoetara joango bazara, honako hauek ordaindu beharko dituzu:

Unibertsitateko kultura-aisialdia: 42,00 €

Unibertsitateko kultura-aisialdia: 42,00 €

Ordaindu beharrekoa, guztira: 84,00 €

- 2) Ordainketa egin ondoren, inskripzioarekin jarraitu beharko duzu.

Zure datu pertsonalak sartu beharko dituzu eta zein kurtsoetan inskribatzen zaren adierazi beharko duzu.

- 3) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren klausula onartu beharko duzu.

- 4) Ordainagiria erantsi beharko duzu.

- 5) Azkenik, laburpena agertuko da inskripzioari buruzko informazio guztiarekin. Gomendagarria da laburpen hori inprimatzea/gordetzea, egiaztagiri gisa. Ez ahaztu "Amaitu" botoia sakatzea prozesua amaitzeko eta zure eskaera gordetzeko.

- 6) Inskripzioa egin ondoren, kurtsoren batetik kanpo geratu bazara plazen kopurua gainditu delako (63 plaza), dagokion diru-itzulketa egingo zaizu.
- 7) Behin inskripzioa eginda, ez da inolako ezeztapenik onartuko, ez bada salbu **parte-hartzaileak istripuren bat izan badu edo gaixorik badago, eta betiere mediku agiriz justifikatuta.**

**Ziurtagiri digitalik ez baduzu,** Basauriko Udalaren beheko solairuan eta San Migelen (Pagasarri kalean) dauden herritarren arretarako bulegoetan -HAZ- eman dezakezu izena. Kasu horretan, banku-txartelarekin joan beharko duzu ordainketa egiteko.

Aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da, 94.466.63.00 telefonoaren bidez edo Herritarrentzako Arreta Bulegoen – HAZ – irteeran instalatutako makina automatikoen bidez edo esteka honetan: <https://sede.basauri.eus/es/citaprevia>.